

# 14 >

## EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO ETIKA OINARRI HARTUTA

### Arlo orokorra

**1 >**

Hiruhileko honetan aldaketak izan ditu Baketik Koordinazio Orokorrean, azken urteetan Baketik Koordinatzaile lanetan aritu den Iker Usonek Inesa Ariztimuñoren esku utzi du zeregin hori; Ariztimuñok ibilbide luzea du bakearen, giza-eskubideen eta kultur kudeaketaren arloan. Ikerrak ematea eta bere ibilbide berrirako onena opatzea dagokigu; gertu jarraituko du ordea, Baketiken modu boluntarioan kolaboratzen jarraitzen duelako.

### Bake eta bizikidetzaren saila

**2 >**

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero martxan jartzen duen bake eta bizikidetzarako programari esker, Baketik Gipuzkoako 12 herritan zeuzkan proiektuen urteko zikloa itxi zen pasa den martxoan. Era berean, proiektu horiei programa beraren baitan jarraibidea emateko pausoak eman dira eta aurten 11 herritan izango da Baketik, elkarriketaren, entzutearen eta bizikidetzaren eta berradiskidetzaren sustatzeko ekintzen garapenean laguntzen.

**3 >**

Gogora Institutuarekin elkarlan estuan jarraitzen dugu Euskadiko herrietatik sinbologia frankista ezabatzeko programan lagunduz.

**4 >** Baketikek, gainera, Memoriaren Plaza proiektu ibiltarian kolaboratu du, Lasarte-Orian, Gernikan eta Santurtzin. Zehazki ikasleentzako lantegiak dinamizatu ditu eta harrera lanak egin ditu hiru herrietako erakusketetan, bisitari eta parte-hartzaile kopuruari dagokionez emaitza oso onak lortuz.

**5 >** Adi-Adian programarekin jarraitzen dugu, eta hiruhileko honetan zazpi saiotan izan gara biktimei laguntzen, Zarautz, Gasteiz, Bilbo, Azkoitia, Azpeitia eta Ortuella euren bizipenak kontatzeko egin dituzten saioetan. Saio hauekin amaiera eman zaio ikasturte honetako programari.

**6 >** Baketik kide den Foro Sozial Iraunkorrek joan den apirilaren 29an Gernikan antolatutako "Bizikidetzara eraikitzen" jardunaldian parte hartu genuen, herrietako bizikidetzara prozesu lokaletan Baketikek izan duen esperientzia azalduz. Baketikek dinamizatzen dituen Lasarte-Oriako eta Elgoibarko herritarren foroetako kideak ere bertan izan ziren, gure gonbidapenari erantzunez eta euren esperientzia eta iritziak elkarbanatu zituzten entzuleekin eta beste herrietako foroetako kideekin.

## Elkartasun saila: Izeba proiektua

**7 >** Bigarren hiruhileko honetan sei adingabe eta pertsona edo familia boluntarioen arteko harremanak abiatu dira. Gaur egun, 52 dira familia edo pertsona boluntarioen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako adingabeen artean martxan dauden harremanak.

**8 >** Maiatzean zehar, Izeba Proiektuaren sentsibilizazio kanpaina bat egin dugu Urola eskualdean, inguru horretan bizi diren adingabeei laguntzeko pertsona edo familia boluntario berriak lortzeko helburuarekin. Horretarako, besteak beste, informazioa eskaintzeko hitzaldi bat egin zen maiatzaren 10ean.

**9 >** Maiatzaren 20an Izeba Proiektuko Parte-hartzaileen XII. Eguna ospatu genuen Tolosan. Proiektuari lotutako 38 lagun, horietatik 13 adingabe babestuek, Tolosako Herrikide eskolan bildu ginen. Hainbat jarduera egin genituen egunean zehar. Goizeko lehen orduan, informazio saio bat egin zen helduekin eta, ondoren, taldekako lan bat egin zen. Bitartean, gazte eta hurrek antzerki lantegi batean parte hartu zuten. Eguerdian talde osoa Tolosako TOPIC-era joan zen, museoaren bisita gidatu bat egiteko. Eguna amaitzeko elkarrekin bazkaldu genuen guztiok.

**10 >** Ekainean amaitu ditu Deustuko Unibertsitateko Babesgabe edo/eta Gizarte Gatazkan dauden Adingabeen Esku-hartze eta Bitartekaritza Masterreko ikasleak Izeba Proiektuan egindako praktikak; esperientzia aberasgarria eta oso positiboa izan dela adierazi du ebaluazioan.

## Antzerki Forumaren saila

**11 >** Nafarroako Gobernuako Bake eta Bizikidetzara Departamentuak Nafarroako eskolei eskaintzen dizkien ekintzen baitan, Baketikek eskola jazarpenari aurre hartzeko hezkuntza-saioak eskaini ditu 18 ikastetxetan. 38 saio eskaini dira guztira, denak ere "Sararen istorioa" obran oinarrituta eta Antzerki Forumean oinarritutako metodologia propio bat erabiliz. 10 eta 14 urte bitarteko hurrekin lan egin da, LH 5 eta 6 eta DBH 1 eta 2 mailetakoekin, eta saio horietan 1.400 ikaslek hartu dute parte gutxi gora-behera.

**12 >** Ebaluazioa oso ona izan da, bai dinamizatzaileen partetik ikastetxeetan jasotako tratua eta harrerari dagokionez, baita ikastetxeena ere, haien iritziz ekintza "oso eraginkorra, aktiboa, parte-hartzailea eta errespetuzkoa" izan baita. Programan parte hartzen duten alderdi guztiek uste dute, gainera, lehentasunezkoa dela eskola jazarpen kasuak saihesteko eta konpontzeko lanean jarraitzea.

## Formakuntza saila

**13 >** Tolosako Herrikide Ikastetxearekin dugun elkarlaneko akordioa dela eta, Baketikek haien instalazioetan eskaini dituzte honako ikastaroak:

- "Pertsona izaten hezi" ikastaroa, apirilaren 1ean; guraso eta hezkuntza arloan aritzen diren 20 lagun inguruk hartu zuten parte.
- "Iparra ez galdu" ikastaroa, maiatzaren 13an, euren bizitzari norabide eta zentzu berri bat emateaz hausnartu nahi duten pertsonentzat.

**14 >** Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, Izan Proposamenaren ikastaro bat eskaini da Igantziko eskolan. Irakasleek eta eskolako gurasoek hartu zuten parte bertan.